



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko urriaren 19a

112. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### F S A I L A :

#### Galderak:

- Galdera, COVID-19ak eragindako pandemia dela-eta kontratatutako kontaktu-arakatzaillei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuko Jokoaren eta Ikuskizun Publikoen Ataleko burutza betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, zahar-etxeetan COVID-19ak izan duen eraginari eta hartutako neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, Euskarabidearen eraikinaren fatxadako errotulazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, liburu-denden sektorea suspertzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, “erkidego-transmisioa” terminoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak Bruselan duen ordezkariak zuzemenik egin al duen Alemaniako eta Belgikako gobernuen neurriak –beren herritarrei Nafarroara ez etortzeko aholkatzea eta debekatzeari atzera botatzeko. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, desgaitasuna duten pertsonen Foru Administrazioan edozein lan egin ahal izateko neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, toki entitateek gerakinak mantentzeagatik finantza entitateei diru-kopururen bat ordaintzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, jakiteko ea zer egoeratan dauden inbertsio finantzarioki jasangarriak bukatu ez zituzten udalak. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, inbertsio finantzarioki jasangarriak betetzeko prozedura luzatzeari dagokionez Espainiako Udalen eta Probintzien Federazioak eta Espainiako Gobernuak lortutako akordioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, langile-deialdien segurtasun juridikoa bermatzearen foru dekretu berri bat taxutzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Eskola Mapa aldatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).

- Galdera, 1960tik 1978ra bitarte eta 1978az geroztik tortura dela-eta eginiko txostenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legean aurreikusitako plan estrategikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuaren” Printzearen Gotorlekua” kirol egoitzako kirolari egoiliarren plazak betetzeko deialdiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, Aizkolegiko Jauregia zaharberritzeko proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, eskola-curriculumean Skolae sartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, Nafarroako Adinekoen Kontseiluari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, Nafarroako foru parlamentariak toki entitateetara egindako bisitetan parte hartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Osasun Departamentuak 2020ko aurrekontuetan aurreikusitako gastuen exekuzio-ezei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, COVID-19ak eragindako pandemia dela-eta kontratatutako kontaktu-arakatzaileei buruzkoa.**

**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, COVID-19ak eragindako pandemia dela-eta kontratatutako kontaktu-arakatzaileei buruzkoa. Galdera 2020ko uztailearen 28ko 79. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko irailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Iba-rrola Guillén andreak idatzizko galdera aurkeztu du (10-19-PES-00142), jakin nahi baititu “COVID-19ak eragindako pandemia dela-eta eginkizun horretarako berariaz kontratatutako kontaktu-arakatzaileen kopurua, lanbide-profila eta kontratuaren data”. Honako hau da Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak horri buruz informatu beharrekoa:

Erantsita doa eskatutako informazioa.

ARAKATZAILEAK						
Lanpostua	Kontratu hasierako hilabetea					Guztira
	Martxo	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	
Administrari laguntzailea	3	2		6	16	27
Erizaina	20	2	3			25
Gizarte langilea					12	12
<b>Guztira</b>	<b>23</b>	<b>4</b>	<b>3</b>	<b>6</b>	<b>28</b>	<b>64</b>

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko irailaren 8an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

---

## **Galdera, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuko Jokoaren eta Ikuskizun Publikoen Ataleko burutza betetzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuko Jokoaren eta Ikuskizun Publikoen Ataleko burutza betetzeari buruzkoa. Galdera 2020ko uztailaren 28ko 79. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko irailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak idatzizko galdera egin du (PES-00145); horren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

Uztailaren 1eko 46/2020 Foru Dekretuaren bitartez kendu egin dira Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuko Jokoaren eta Ikuskizun Publikoen Ataleko burutza betetzeko berariazko betebeharrak. Zergatik?

Segurtasun Politikak Garatzeko Zerbitzuak beharrezkotzat jo zuen berariazko betekizunak kentzea Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuko Jokoaren eta Ikuskizun Publikoen Ataleko burutzari, haiek lanpostuaren egiazko beharretara egokitze aldera.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko irailaren 14an

Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteigüía

## **Galdera, zahar-etxeetan COVID-19ak izan duen eraginari eta hartutako neurriei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, zahar-etxeetan COVID-19ak izan duen eraginari eta hartutako neurriei buruzkoa. Galdera 2020ko abuztuaren 20ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko irailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak

galdera egin du zahar-etxeetan COVID-19ak duen eraginari buruz eta hartu diren neurriei buruz (10-20/PES-00147). Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

COVID-19a daukatela baieztatuta dagoen zenbat pertsona dago 2020ko uztailaren 28an Tuterako La Atalaya zahar-etxean? Eskubide Sozialetako Departamentuak eta Osasun Departamentuak zer neurri zehatz hartu dituzte 2020ko uztailaren 28an, zahar-etxe horretan gaixotasuna hedatzea ekiditeko? Hartutako neurriak agiri bidez kreditatzea eskatzen dut.

2020ko uztailaren 28an ez dago COVID-19a duen inor Tuterako La Atalaya zahar-etxean. Egoitza horretan kasu bat atzeman zen uztailaren

10ean, eta ospitaleratu egin zuten. Osasun Departamentuko unitate soziosanitarioak eta arakatzaille taldeak 18 egoiliar identifikatu zituzten kontaktu estutzat (bizikidetzta-unitate berekoak). PCR proba egin zitzairen egoiliar guztiei (negatibo eman zuten) eta langile guztiei; langileen artean sintomarik gabeko bi kasu positibo atzeman ziren.

Handik 10 egunera berriz egin zitzairen PCR proba kontaktu estutzat identifikatutako 18 egoiliarrei; haietako bat positiboa izan zen (hura ere sintomarik gabe) eta Amavir Argaray tarteko baliabidera eraman zuten. Lehen kasua ospitaletik egoitzara itzuli zen PCR negatiboaren ondoren.

Eskubide Sozialetako Departamentua etengabe aritu zen harremanetan egoitzako zuzendaritzarekin, neurriei eusten zitzaizela egiaztatzeko eta, halaber, langileek babes ekipamenduak ba ote zituzten eta ezer behar ote zuten jakiteko. Egoitzak ez zuen laguntza beharrik izan alde horretatik.

2020ko uztailaren 28an, zer zahar-etxetan dago pertsona bat edo bat baino gehiago kutsatuta? COVID-19a daukatela baieztatuta dagoen zenbat pertsona dago egun horretan zahar-etxe horretan? Eskubide Sozialetako Departamentuak eta Osasun Departamentuak zer neurri zehatz hartu dituzte 2020ko uztailaren 28an, zahar-etxe horretan gaixotasuna hedatzea ekiditeko? Hartutako neurriak agiri bidez kreditatzea eskatzen dut.

Uztailaren 28an, COVID-19 kasuren bat identifikatua zuen zahar-etxe bakarra Alesbesko Virgen del Portal egoitza zen. Egoiliarra beste arrazoi batengatik ospitaleratu zen, eta PCR baheketa-proba egitean positibo eman zuen. Uztailaren 28an pertsona hori ospitaleratuta zegoen; alta

eman ziotenean (abuztuaren 3an) PCR negatiboa zuen.

Kasu positibo horren berri jakin ondoren, eta orduan ere unitate soziosanitarioak eta arakatzaille taldeak balorazioa egin ondoren, PCR proba egin zitzairen kontaktu estutzat identifikatutako egoiliarrei (hiruri) eta bizikidetzta-unitateko gainerako pertsoneri (beste 10 lagun), baita 4 langileri ere. Guztiek izan zuten emaitza negatiboa. Hamar egun geroago proba berriz egin zitzairen kontaktu estutzat hartutako hiru pertsoneri, zeinak bakarturik egonak baitziren, eta haiek ere emaitza negatiboa izan zuten.

Era berean, Eskubide Sozialetako Departamentua egoitzarekin harremanetan aritu zen, materiala bazutela eta prebentzio-neurriak (bakartzea) martxan jarriak zirela egiaztatzeko.

Egoitzan prebentziozko bakartzeak egiteko erabilitako materiala berritu egin zen abuztuaren 14an. (105 mantal, 95 aurreko mantal, 200 eskularru, 200 FFP2 maskara).

Geroago, egoitza horretan, langile batek positibo eman zuen, eta abuztuaren 22an baheketa egin zitzairen egoiliar guztiei (49) eta 28 langileri. Berrito ere proba guztiak negatiboak izan ziren.

Neurri horiek hartu zirela egiaztatzeko dokumentazioa Osasuneko erregistroetan jasota dago, eta horietan ageri dira egindako probak.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko irailaren 9an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

## **Galdera, Euskarabidearen eraikinaren fatxadako errotulazioari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Bonilla Zafra jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Euskarabidearen eraikinaren fatxadako errotulazioari buruzkoa. Galdera 2020ko abuztuaren 20ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko irailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Bonilla Zafra jaunak 10-20/PES-00148 idatzizko galdera egin du. Hauxe da horri buruz Herritarrekiko Harremanetako kontseilariak ematen duen informazioa:

Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoak irailaren 10eko 183/2007 Foru Dekretuan du jatorria, "modu positibo eta integritzaile batez giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak bideratzeko euskara berreskuratzera, sustatzera eta garatzera".

Dekretu horretan Euskararen Nafar Institutua / Instituto Navarro del Vasconce erakunde autonomoa sortu zen. Erakunde horrek, maiatzaren 26ko 55/2008 Foru Dekretua medio, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua izena hartu zuen.

Kexan aipatutako erakunde autonomoaren izen ofiziala jasorik dago azaroaren 6ko 303/2019

Foru Dekretuan, zeinaren bidez onesten baitira Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak.

Erakundearen izena honela dago ezarrita dekretu horretan:

- Gaztelaniaz: Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera.
- Euskaraz: Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua.

Kexaren unera arte, erakundearen "Euskarabidea" marka grafikoa beste errotulurik ez zen jarri, izen hori bai gaztelaniazko bertsioan bai euskarazko bertsioan baitago.

Abuztuaren 26an eraikineko fatxadan kanpoaldeko errotulua jarri zen testu honekin: Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutua / Euskarabidea – Instituto Navarro del Euskera.

Eraikineko obrak duela gutxi bukatu dira eta orain itxita dago jendearentzat. Altzariak jarri eta erakunde osatzen duten unitate organikoen kokalekuak erabaki ahala, barnealdeko eta kanpoaldeko errotulazioa enkargatuko da, eta indarra duen araudia betez egingen da errotulazio hori.

Eraikinaren barnealdeko errotulazioa enkargatuta dago eta aurreikusten da irail honetan paratzea, bulegoak jendearentzat ireki baino lehen, nolana ere.

Iruñean, 2020ko irailaren 10ean

Herritarrekiko Harremanetako kontseilaria: Ana Olo Hualde

## **Galdera, liburu-denden sektorea suspertzeari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, liburu-denden sektorea suspertzeari buruzkoa. Galdera 2020ko abuztuaren 20ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko irailaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako Bakartxo Ruiz Jaso andreak 10-20-PES-00150 informazio-eskaera aurkeztu du. Hona Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Testuliburuaren finantzaketari buruz indarra duen araudia abuztuaren 11ko 89/2008 Foru Dekretuan dagoela adierazten da galderaren testuan. Dekretu hori indarrik gabe utzi zuen irailaren 27ko 61/2010 Foru Dekretuak, zeinaren bidez onesten baita Oinarritzko Irakaskuntzarako Testuliburuaren Finantzatzeari buruzko martxoaren 25eko 6/2008 Foru Legea garatzeko Erregelamendua.

61/2010 Foru Dekretu horrek honako hau dio 12. artikuluan (Testuliburuaren erosteko prozedura):

“Ikastetxeek bi aukera izanzen dituzte: onuradun den ikaslearen legezko ordezkariari bonu bat ematen ahalko diete edo, bestela, bidezkoztat jotzen duten sistema ezartzen ahalko dute eskuratzeko eta antolatzeko”.

Araudi indardun horretan oinarrituta, 2019-2020 ikasturteko datuen arabera, testuliburuak finantzatzen zaizkien 277 ikastetxeetatik 39tan ikastetxeak bonua ematen du, eta gainerako 238 ikastetxeek kudeaketa proioa dute.

Araudi hori betez gero, eta ikastetxe bakoitzaren autonomia aintzat harturik, ikastetxe bakoitzak erabaki dezake zein sistema erabili nahi duen testuliburuaren finantzaketarako laguntza hori kudeatzeko. Beraz, ezin da mugatu ikastetxeen zuzeneko kudeaketako sistema, doako liburuaren programari atxikitako liburu-dendetan erosteko bonuak banatzen dituen sistemaren mesedetan.

Berriazko araudi horren helburua honako hau da, 1. artikuluan (Xedea eta aplikazio-eremua) adierazten den bezala:

“Testuliburuak doan jasotzeko programaren helburua hau da: Hezkuntzari buruzko maiztaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 18. artikuluan eta 24. eta 25. artikuluetan, hurrenez hurren, Lehen Hezkuntzarako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako ezartzen diren arlo edo irakasgaietako testu liburuak maileguan uztea, Nafarroako Foru Komunitatearen funts publikoen laguntza jasotzen duten ikastetxeetan Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ikasten ari diren ikasleei”.

Beraz, ez da araudiaren xedea liburu-denden sektorea arautzea, lehia-merkatu libre batek arautzen baitu sektore hori. Berrikusi edo aldatu egin daiteke, baina ez kudeaketa-sistema bat nahitaez ezartzeko, ikastetxe bakoitzak bere burua kudeatzeko duen ahalmena mugatuko bailitzateke horrela.

Testuliburuak saltoki handietan erosi ordez liburu-dendetan erostea sustatzeko errefortzu positiboko neurriei dagokienez, merkatu libreko sistema batean saltokiek edo liburu-dendek berek sustatu behar lituzkete eskaintzak, ikastetxeentzat interesgarriagoa izan dadin bonuen sistemara jotzea ikastetxean bertan kudeatzea baino.

Iruñean, 2020ko irailaren 11n

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

## Galdera, “erkidego-transmisioa” terminoari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, “erkidego-transmisioa” terminoari buruzkoa. Galdera 2020ko abuztuaren 20ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko irailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatzizko galdera aurkeztu du (10-20-PES-00151), informazioa jaso nahi baitu “erkidego-transmisioari buruz”. Hona Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariaren informazioa:

“Erkidego-transmisioa” kontzeptu teknikoa da eta askotariko interpretazioak ditu, zenbaki hutszko adierazleetatik harago.

Kasu positibo bakoitzaren kontaktu ezagunen proportzioa parametro bat da, nahiz eta horretan bi une dauden elkarrekin lotu behar direnak hurbi-lagotik hauteman ahal izateko.

Baliteke eguneroko eta are asteroko berri-emateetan zenbait kasu agertzea aurrez loturarik ez dutenak positibo batekin, eta gerora, atzera begirako ikerketa epidemiologikoari esker, lotura hori aurkitzea. Nolanahi ere, gorabeherak izan arren, egunero ikusten da nola Nafarroan atzemandako kasu gehienak azken batean agerraldiren batekin lotzen diren, edo aurrez izandako kasu baten kontaktuak izan direla agertzen den.

Egia da, Ministerioak COVID-19a kontrolatzeko erantzun goiztiarraren planean (<https://www.mscbs.gob.es/gabinetePrensa/nota-Prensa/pdf/13.07130720131534059.pdf>) deskribatutako jokalekuen barnean, Nafarroan baditugula “agerraldi konplexu” horietakoak, “noizbehinkako erkidego-transmisioa” dakartenak. Ingurune aldakor honetan, NUPen eta Navarra-Biomed-en laguntzarekin, alerta goiztiarreko proiektio-ereduak lantzeko saiakuntzak egin dira.

Funtsean, kasu susmagarri guztiak osasun eskualde oinarritzkoen arabera zenbatzen dira, eta datuek adieraz dezakete eragin handiagoko eskualde bihur daitezkeela, kasu susmagarri horiek berretsiz gero. Oro har bat-etortzea gertatu ohi da, nahiz eta, gaur egun, bilakaera epidemiologikoaren aurreikuspena Oinarritzko Osasun Laguntzako eguneroko berri-emateetan oinarritzen den eta horietan azken asteko tasa metatuak aipatzen diren. Kontu horiek ere Gobernu Irekian argitaratzen dira, arakatzaille taldeen eguneroko lanaz gainera.

Horren harira esan beharra dago arakatze gune egonkor batek egunean 1.000 dei inguru egin ditzakeela kontaktuak identifikatzeko eta jarraipena egiteko.

Beste aldetik, COVID-19ari buruzko kontsultak egiteko herritarren deien sarrerari dagokionez, hiru bide daude. Teorian osasun etxeak berak dira lehen maila, gero erizainaren aholkurako telefonoa dago (948290290), eta, kasu larrietarako soilik, 112 telefonoa.

Arazo zehatzak antzeman ditugu sarbide horietan, ontzi komunikatuen efektuarekin agian, baina konpontzen saiatu gara bitarteko hauek jarritz:

- 5 pertsona (larrialdietako erizainak) aldi berean.
- 5 linea. (Linea bat izatetik arratsaldez, pasatu da bost linea izatera goiz eta arratsaldez).
- Lineak beti ari dira hizketan. Kontua ez da ez dutela erantzuten, okupatuta daudela baizik.
- Indargarri hauek jarriko ditugu:
  - Lokuzioa, sartzerik lortzen ez denerako.
  - Gurutze Gorriko call centerraren laguntza eskatu.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko irailaren 2an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna



**Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak Bruselan duen ordezkariak zuzemenik egin al duen Alemaniako eta Belgikako gobernuen neurriak –beren herritarrei Nafarroara ez etortzeko aholkatzea eta debekatzea– atzera botatzeko.**

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Iñaki Iriarte López jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak Bruselan duen ordezkariak zuzemenik egin al duen Alemaniako eta Belgikako gobernuen neurriak –beren herritarrei Nafarroara ez etortzeko aholkatzea eta debekatzea– atzera botatzeko. Galdera 2020ko abuztuaren 20ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko irailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Iñaki Iriarte López jaunak 10-20/PES-00152 idatzizko galdera egin du. Hauxe da horri buruz Herritarrekiko Harremanetako kontseilariak ematen duen informazioa:

Lehenik, gogorarazi nahi dizut Nafarroako Gobernuak oraingo legealdian ez duela Bruselan

ordezkaririk aurreko legealdian izan zuen bezala. Egungo organigraman Kanpo Ekintzarako Zuzendaritza Nagusia dugu, beste arduraren batzuen artean bere gain hartzen dituen Gobernuaren Europar Batasunarekiko politikak, eta Bruselako bulegoa zuzentzen duena.

Galdera zehatzari dagokionez, esan behar dizut bai Gobernuak lehendakariak gai gainerako gobernakideek neurri hori dela-eta beren kezka helarazi dietela Alemaniako eta Belgikako agintariari. Departamentu honen eskumeneko arloari dagokionez, Kanpo Ekintzarako Zuzendaritza Nagusiak une oro informatuta eduki ditu Belgikan bizi eta Bruselako bulegoko datu-basean izena emanda dauden nafarrak, Belgikara itzultzeko bete behar dituzten prozedurei buruz; izan ere, bulego horrek ez du kontsulatuaren eskumenik.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2020ko irailaren 10ean

Herritarrekiko Harremanetako kontseilaria: Ana Olo Hualde

**Galdera, desgaitasuna duten pertsonen Foru Administrazioan edozein lan egin ahal izateko neurriari buruzkoa.**

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, desgaitasuna duten pertsonen Foru Administrazioan edozein lan egin ahal izateko neurriari buruzkoa. Galdera 2020ko abuztuaren 20ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, desgaitasuna duten pertsonen Foru Administrazioan edozein lan egin ahal izateko neurriari buruz (10-20/PES-00154). Hona Nafarroako Gobernuak Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak ematen duen informazioa:

Ekainaren 12ko 69/2019 Foru Dekretuak, zeinaren bidez irisgarritasun politika onesten baita

webguneetarako eta gailu mugikorren aplikazioetarako, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta foru-sektore publiko instituzionalean, fokua jartzen du, izenak dioen bezala, web eta mugikorretako aplikazioetan. 'Xedea' izenburuko 1. artikulua 1. apartatuak dioenez, bermatu behar da 'betetzen dela webguneetako eta gailu mugikorretako irisgarritasunari aplikatu beharreko araudia', eta barnean hartzen ditu, orobat, 'beharrezko printzipio oinarrizkoak eta baldintza gutxienekoak, ahalbidetzen dutenak herritar guztiei ematea bitarteko hauen bidez eskaintzen diren zerbitzu eta eduki guztiak'. Artikulu beraren 2. apartatuak azpimarratzen du bermatu behar direla 'berdintasuna eta diskriminaziorik eza erabilitzaileen irisgarritasunean, bereziki desgaitasuna dutenen kasuan eta pertsona zaharren kasuan'.

Foru dekretu horren 5.2 artikuluan, halaber, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko eta foru sektore publiko instituzionaleko Irisgarritasuneko Unitate Arduradunaren eginkizunak azaltzen dira, eta b) letran unitate horri agintzen zaio 'pertsona interesdunek arlo honetan igorritako erreklamazioei arreta eta erantzuna' emateko.

Estatuko legeriari erreparatuta, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren testu bategina onartzen duenak, 36. artikuluan ('Tratuberdintasuna') azaltzen duenez, 'tratuberdintasu-

na da desgaitasuna dela-eta ez eragitea diskriminazio zuzeneko edo zeharkakorik ez enpleguan, ez prestakuntzan eta lanbidean gora egiteko prozeduretan eta ez gainerako lan-baldintzetan ere'. Halaber, 37. artikulua ('Desgaitasunen bat duten pertsonen enplegu motak') hau dio 3. apartatuan: 'Enplegu publikorako irispidea arlo horretako araudiak arautzen du'.

Hortaz, legeria argia da herritarrei begira, baina ez du ebatzita uzten barneko tresnak desgaitasun guztietara modu orokorrean nahitaez egokitu behar izatea, web eta mugikorretako aplikazioetan eta bestelakoetan egiten den bezala. Hori dela eta, adierazi behar dizut aipatu duzun kasuan legeria indardunak ezartzen duena eginen dela: alegia, eta zure galderari erantzunez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko Irisgarritasuneko Unitate Arduradunaren deialdia egin, eta kasu zehatz honetan erabakiak hartu arazoa konpontzeko pertsona eskatzailearekin. Horrez gain, eta zure azken galderari dagokionez, kontseilari honek ez du antzeko beste inongo erreklamazioen berririk.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2020ko irailaren 7an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Cruz Cigudosa

## **Galdera, toki entitateek gerakinak mantentzeagatik finantza entitateei diru-kopururen bat ordaintzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Yolanda Ibáñez Pérez andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, toki entitateek gerakinak mantentzeagatik finantza entitateei diru-kopururen bat ordaintzeari buruzkoa. Galdera 2020ko abuztuaren 20ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Yolanda Ibáñez Pérez andreak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, jakiteko ea toki-entitateek finantza-erakundeei dirurik ordaintzen dieten gerakinak mantentzeagatik (10-19/PES-00155). Hona Lurralde Kohesiorako kontseilariak ematen duen informazioa: Lurralde Kohesiorako Departamentuko Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiak ez du jakin gaur egun toki-entitateek

inongo diru kopururik ordaintzen ari direnik beren finantza-erakundeetan gordailututako banku-saldoengatik.

Bestalde, Nafarroako toki-entitateek departamentu honetan aurkeztu behar duten dokumentazioa aurrekontu-espeditenteei, aurrekontuen likidazioari, kontuei eta beste batzuei buruzkoa da, eta ez dago horien artean eskatutako informazioaren xehakapena.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2020ko irailaren 7an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria. Bernardo Ciriza Pérez

## **Galdera, jakiteko ea zer egoeratan dauden inbertsio finantzarioki jasangarriak bukatu ez zituzten udalak.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Yolanda Ibáñez Pérez andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, jakiteko ea zer egoeratan dauden inbertsio finantzarioki jasangarriak bukatu ez zituzten udalak. Galdera 2020ko abuztuaren 20ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Yolanda Ibáñez Pérez andreak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, jakiteko zer egoeratan geratu diren inbertsio finantzarioki jasangarriak bukatu ez zituzten udalak (10-19/PES-00156). Hona hemen Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak ematen duen informazioa: urriaren 10eko 19/2018 Foru Legearen bide, Inbertsio Finantzarioki Jasangarriei buruzko Plana onetsi zen. Foru lege horren bigarren xedapen gehigarriak araubide berezia ezartzen du II. eranskinean agertzen diren inbertsioetarako.

Bigarren xedapen gehigarriaren 2. apartatuko j) letraren arabera, obra-amaieraren justifikazioa aurkezteko muga-eguna 2019ko abenduaren 1a da.

Bigarren xedapen gehigarriak berak ezartzen duenez, obrak ezarritako epetik kanpo amaitzen badira, zerbitzu tekniko eskudunek ikuskatuko dute behar bezala justifikatutako obra edo obra

zattia, aurreikusitako erabilera publikorako erabil daitezkeen edo ez zehazteko. Baiezkoan, zerbitzu horren iritziz frogatuta dagoen kostu zatiari dagokion diru-ekarpena ordainduko da. Aurreikusitako erabilera publikorako baliatua izateko moduan ez badago, jasotako diru-kopuruak itzultzeko espediente egokia izapidetuko da.

Foru legeak ez du jasotzen dokumentazioa aurkezteko epea luzatzeko aukerarik; beraz, adierazitako egunaren ondoren aurkezten diren amaierako ordainketarako eskaera guztiak baztertu behar dira.

Bigarren xedapen gehigarriaren arabera, erabilera publikorako izan daitezkeen obrei edo obra zatiei dagozkien diru-ekarpenak ordainduko dira, betiere epean igorri bada obra-amaierako dokumentazioa.

Cabanillas, Martzilla eta Alesbesko udalek honako espediente hauek zituzten Inbertsio Finantzarioki Jasangarriei buruzko Planean sartuak:

Cabanillas:

- 02061-IFS-19. Hornidurarako, saneamendurako eta euri-uretarako sareak zenbait kaletan
- 30014-IFS-19. Kirol instalazioetako sarbideak eta komunak EKTren arabera egokitzea
- 51042-IFS-19. Kaleetako zoladura
- 52021-IFS-19. Fragua, Las Eras, Juan XXIII (zati bat) eta Canal A kaleak zolatzea

Martzilla:

- 02061-IFS-19. Kale Berria, San Ezequiel Moreno, Urmeneta eta El Puente kaleetako horni-

durarako, saneamendurako eta euri-uretarako sareak

- 30014-IFS-19. Argiteria publikoa berritzea
- 51042-IFS-19. Kale Berria eta San Ezequiel Moreno, Urmeneta eta El Puente kaleak zolatzea

Alesbes:

- 02015-IFS-19. Crucero Portal, Virgen del Portal eta Los Muchos kaleetako eta Pasealekuko hornidurarako, saneamendurako eta euri-uretarako sareak
- 04073-IFS-19. Herriguneko argiteria publikoa berritzea

- 51011-IFS-19. Crucero Portal, Virgen del Portal eta Los Muchos kaleak eta Pasealekua zolatzea

Cabanillas, Martzilla eta Alesbesko udalak ez ziren gauza izan obrak epean bukatzeko. Hiru toki-entitateek amaierako exekuzio desberdinak lortu zituzten. Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiko Toki Azpiegituren Zerbitzuak berrikusi egin zuen aurkeztutako dokumentazioa, zehazteko ea obrak erabilera publikorako izan zitezkeen, eta behar ziren diru kopuruak ordaindu ziren. Laburpen gisara, hona hemen entitate bakoitzak jasotako ekarpenak eta gauzatutako inbertsioak:

	Gauzatutako inbertsioa (%)	Ordaindutako amaierako ekarpena
Cabanillas	% 15	121.266.60
Martzilla	% 33	302.785.47
Alesbes	% 70	525.295,26

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2020ko irailaren 7an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Bernardo Ciriza Pérez

## **Galdera, inbertsio finantzarioki jasangarriak betetzeko prozedura luzatzeari dagokionez Espainiako Udalen eta Probintzien Federazioak eta Espainiako Gobernuak lortutako akordioari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Yolanda Ibáñez Pérez andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, inbertsio finantzarioki jasangarriak betetzeko prozedura luzatzeari dagokionez Espainiako Udalen eta Probintzien Federazioak eta Espainiako Gobernuak lortutako akordioari buruzkoa. Galdera 2020ko abuztuaren 20ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Yolanda Ibáñez Pérez andreak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, inbertsio finantzarioki jasangarriak betetzeko prozeduraren luzapena dela-eta Espainiako Udalen eta Probintzien Federazioak eta Espainiako Gobernuak egindako akordioari buruz (10-19/PES-00157). Hori dela eta, hona Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak informatu beharrekoa: Espainiako Udalen eta Probintzien Federazioaren eta Espainiako Gobernuaren arteko akordio hori jasorik dago Toki-erakundeei aplikatu beharreko finantza-neurri berezi eta presakoei

buruzko 27/2020 Errege Dekretuaren 2. artikuluan, eta dekretua indarrean dago 2020ko abuztuaren 5eko BOEn argitaratu zenetik.

Artikulu horren indarrez, 2018ko superabitarekin finantzatuta 2019an inbertsio finantzarioki jasagarriak onetsi zituzten Nafarroako toki-entitateek epe luzeagoa dute inbertsioak betetzeko, 2021ean bukatzen ahal baitituzte, 2020an bukatu ordez.

Horretarako, ezinbestekoa da inbertsioak 2019an baimenduak izatea eta 2020an osorik konprometituta egotea. 2021ean gauzaten den gastu zatia gastu orokorretarako 2020ko itxierako diruzaintzako gerakinarekin finantzatuko da, eta helburu horri atxikita geratuko da. Entitateak ezin izanen du defizitik izan 2021eko aurrekontuaren likidazioan.

Toki-entitateen superabitaren kargura finantzatzen diren inbertsioak dira horiek, eta, beraz, ez

dakigu Nafarroan ba ote den toki-entitateen bat egoera horretan, hau da, inbertsio finantzarioki jasagarriak dituen 2018. urteko superabitaren kargura finantzatu eta 2020. urtean amaitzekoak ez direnak.

Hortaz, Nafarroako Gobernuari eragiten ez dion neurria da, eta egoera horretan dauden toki-entitateek egin behar dute egoeraren balorazioa; funtsean, ordea, badirudi Covid-19ak sortutako egoeraren ondorioz exekuzioa atzeratu zaien toki-proiektuen aurrekontu-kudeaketa errazten duen neurri batez ari garela.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2020ko irailaren 7an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Bernardo Ciriza Pérez

## Galdera, langile-deialdien segurtasun juridikoa bermatzearen foru dekretu berri bat taxutzeari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, langile-deialdien segurtasun juridikoa bermatzearen foru dekretu berri bat taxutzeari buruzkoa. Galdera 2020ko abuztuaren 20ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko irailaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu-Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatzizko galdera egin du (PES-00158); horren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

• Zein fasetan dago dekretua egiteko prozedura? Noizko onartuko du gobernuak? Zein izango dira bere ezaugarri nagusiak?

• Zenbat eta zein plaza atera da epaiaz geroztik, departamentuka eta zonaldeka (euskalduna, mistoa eta ez-euskalduna)?

• Zeinetan izan da euskara prezeptiboa?

• Zeinetan baloratu da meritu gisa eta zenbateko balorazioz, eta zeinetan ez da baloratu ere egin?

• Zeinetan baloratu da atzerriko beste hizkuntzaren bat meritu gisa eta zenbateko balorazioz, eta zeinetan ez da baloratu?

Nafarroako Gobernuko Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuak burutzean ditu Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duen 103/2017 Foru Dekretua aldatzeko departamentu arteko taldearen lanak, berme juridikorik handiena eskaintzen duen eta, gainera, adostasun sozial, politiko eta sindikal handiena duen arau-formula bat planteatzeko, betiere Nafarroako errealitate soziolinguistikoa eta haren zoni-fikazioa errespetatuz.

Ruiz Jaso parlamentariak egin dituen gainerako galderei dagokienez, lan publikoaren deialdi guztiak eta plantilla organikoa aldatzeko dekretu

tuak NAO n eta Nafarroako lan publikoari buruzko atarian argitaratzen dira.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko irailaren 11n

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguí

## Galdera, Eskola Mapa aldatzeari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Eskola Mapa aldatzeari buruzkoa. Galdera 2020ko abuztuaren 20ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko irailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako Bakartxo Ruiz Jaso andreak eginiko 10-20-PES-00159 zenbakiko galdera idatzia dela-eta, Hezkuntzako kontseilariak honako honen berri ematen du:

– 2021-22 ikasturteko aurrematrikulazio garairako Eskola Mapa aldatzeko aukera dela-eta, zein da Departamentuak azaldutako prozesuak hartuko lukeen denbora-tartea?

Dagoeneko prozedura hasia dela kontuan hartuz, Hezkuntza Departamentuak uste du 4-5 hilabete beharko liratekeela Eskola Mapan aldaketa egiteko, egun duen definizioan hobetu beharreko egoerak zuzendu ahal izan daitezen.

– Noiz dauka asmoa Departamentuak dekretua aldatzeko prozesuari ekitea?

Prozesua hasi da dagoeneko, abian jarri baitzen Hezkuntzako kontseilariaren abuztuaren

12ko 70/2020 Foru Agindua onetsi zenean, zeinaren bidez prozedura hasten baita uztailearen 3ko 80/2019 Foru Dekretuaren eranskina aldatzeko. Foru dekretu horren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoen sarea berrantolatatu zen. Hau xedatzen du foru agindu horrek:

1.- Uztailearen 3ko 80/2019 Foru Dekretuaren eranskina aldatzeko prozedura hastea. Foru dekretu horren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoen sarea berrantolatatu zen.

2.- Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua izendatzea espedientea prestatu eta tramitatzeko organo arduradun.

2020ko abuztuaren 17an, foru agindu hori argitaratu zen, aurretiazko kontsulta publikoaren txostenarekin batera, Nafarroako Gobernu Irekia webgunean.

– Berma lezake Departamentuak aipatu aldaketa indarrean egonen litzatekeela aurrematrikulazio aldia iristerako?

Departamentuaren jarduketak aipatu egunean hasi izanak, aurretiazko kontsulta publikoaren izaipidea jada eginda dagoela, bermatu behar luke, ezusteko salbuespenik ezean, Eskola Maparen aldaketa indarrean egotea hurrengo aurrematrikulazio aldirako.

Iruñean, 2020ko irailaren 18an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

## **Galdera, 1960tik 1978ra bitarte eta 1978az geroztik tortura dela-eta egini-ko txostenei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 1960tik 1978ra bitarte eta 1978az geroztik tortura dela-eta egini-ko txostenei buruzkoa. Galdera 2020ko abuztuaren 20ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko irailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatzizko galdera egin du Nafarroan izandako tortura eta tratu txarren gaineko txostenei eta ekinbideen egokitzapenari buruz (10-20/PES-00160). Hauxe da horri buruz Herritarrekiko Harremanetako kontseilariak ematen dion informazioa:

Gobernuaren asmoa da 2019-2023 legealdira-ko bizikidetzaren berdintasuna, berrikuntza eta aurrerabidea agintzen dituen gobernu-programan ezarritako mandatua betetzea. Zehazki, "Memoria, bakea, bizikidetzaren eta giza eskubideak" ataleko 15. artikuluan gobernu programak dio garatu eta aplikatuko dela "martxoaren 26ko 16/2019 Foru Legea, eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politiko-ko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzkoa, betiere instituzioak biktimei begira jarrita".

Martxoaren 26ko 16/2019 Foru Lege hori Konstituzio Auzitegian errekurrituta dago, eta ikerketa osagarri dagokienez, baditugu Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren epai bat eta Auzitegi Gorenak hura berresteko emandako autoa, aurreko legealdian gai horren inguruan ikertzeko abiarazi ziren jarduketak deuseztatu dituztenak. Errekurtsoa gorabehera, departamentu honek lege hori martxan jarri nahi du hurrengo hilabetetan, ahalik eta segurtasun juridiko handienarekin, betiere.

Nafarroako I. Bizikidetzaren Plan Estrategikoan torturaren gaiari heltzeko aurreikuspenari dagokionez, garrantzitsua da zehaztea planeko hamar esparruetako batek "Memoria, biktimak eta giza eskubideak" duela izena. Testuinguru horretan helduko zaio giza eskubideen urraketa mota horri.

Gainera, Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiko Dokumentazio Zentroak eta Memoriaren Institutuak lanean jarraitzen dute giza eskubideen urraketen biktimen lekukotasunak biltzen eta dokumentatzen.

Azkenik, gobernu honek, Herritarrekiko Harremanetako Departamentuaren eta Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuaren elkarlana dela medio, jarraituko du giza eskubideen arloan Istanbulgo Protokoloan ezarritako delituei aurrea hartzeko mekanismoen aplikazioa bultzatzen, Europako Giza Eskubideen Batzordeak askatasunaz gabetutako eta atxilotutako pertsonen eman beharreko tratuari buruz emandako jarraibideak betez.

Iruñean, 2020ko irailaren 10ean

Herritarrekiko Harremanetako kontseilaria: Ana Olló Hualde

## **Galdera, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legean aurreikusitako plan estrategikoari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Isabel Olave Ballarena andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legean aurreikusitako plan estrategikoari buruzkoa. Galdera 2020ko abuztuaren 20ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko irailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Isabel Olave Ballarena andreak idatzizko galdera egin du (PES-00161); horren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

Zein izan dira Plan Estrategikoa garatzeko jarduketak zehatzak, zein da haren idazketa maila eta Departamentuaren ustez noiz arte luzatuko da haren onespeneraren ez-betetzea?

Nafarroako Gobernuko Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuak gaiari buruzko txostena igortzen dizu, Nafarroako Berdintasunerako Institutuak egina.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko irailaren 8an

Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

### **Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren txostena, 10-20/PES-00161 galdera parlamentarioari erantzunez**

Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legearen hirugarren xedapen gehigarriak dioenez, Nafarroako Gobernuak, foru lege horrek indarra hartu eta urtebeteko epean, foru legearen 14. artikuluan aurreikusitako plan estrategikoa onetsi behar

zuen. Hala ere, epea geroratu egin da zenbait arrazoiengatik.

Lehenik, 2019ko maiatzaren 26ko hauteskunde ondoen gobernu berria sortu arte itxaron behar izan zen. Hura uztailearen 26an onartu zen Nafarroako Parlamentuan. Gobernuaren departamentukako egitura geroago eratu zen; zehazki, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuak 2019ko abuztuaren 15ean argitaratu zuen bere egiturari buruzko foru dekretua. Egitura berri horrek berekin ekarri zuen Foru Komunitatean berdintasunerako politiken ardura duen erakunde autonomoa departamentu horri esleitzea —gogora dezagun lehenago beste departamentu batean zegoela—. Azaroaren 7ra arte ez zen argitaratu erakunde autonomo horren behin betiko egitura.

Aldaketa horiek zirela eta, egokitzealdi baten beharra izan zen. Izan ere, ia INAI/NABIko zuzendaritza talde osoa berritu da, bai eta langile-etako batzuk ere.

Bigarrenik, aurrekontuak luzatuta egotearen ondorioz, hainbat espedienteren kudeaketa atzeratu zen; besteak beste, 17/2019 Foru Legean aurreikusitako plan estrategikoa egiteko lizitazioarena. Azkenik, alarma sanitarioak atzerapen hori okerragotu zuen. Izan ere, beharrezkoa izan zen, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez, alarma egoera deklaratzeko, COVID-19ak sortutako krisi sanitarioko egoera kudeatzeko. Dekretu horren hirugarren xedapen gehigarrian eten egin ziren sektore publikoko erakundeetako prozedurak izapidetzeko epe administratiboak, lizitazio publikoen prozedurenak barne.

Administrazioaren geldialdi horren ondorioz ia bi hilabete gehiagoz atzeratu zen berdintasunerako plan estrategikoa prestatzeko kontratuaren lizitazioaren espedienteak. Hala ere, INAI/NABIk aurrera jarraitu zuen tramitazioan, eta lizitazio iragarkia jada eskuragarri dago Nafarroako Gobernuaren Kontratazio Atarian. Eskaerak aurkezteko epea abuztuaren 19an hasi zen eta irailaren 2an amaituko da. Beraz, eskaerak hartzeko prozesu betean gaude. Hemendik aurrera, kontratazio publikoari buruzko legeak ezartzen dituen epeak bete behar dira. Edonola ere, kontratazio agirian ikus daiteke zein epe ezarri diren kontratua betetzeko. Betetze horren lehen urratsa izanen da



dokumentuaren hasierako zirriborroa aurkeztea, aurtengo azaroaren 30a baino lehen, non atariko alderdi nagusiak bilduko diren.

Oroitarazi behar dugu, hala ere, berdintasunerako plan estrategikoak Berdintasunari buruzko Legea garatzeko tresna estrategiko nagusia izan behar duela eta Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasuna bermatzeko aplikatuko diren helburuak eta zeharkako neurriak jaso beharko dituela. Asmoa da planak sei urte irautea indarrean, eta proiektuak sekulako garrantzia du Nafarroako Berdintasunerako Institutuarentzat. Bertan jasoko diren azterketek, diagnostikoez, helburuek, orientabide estrategikoez eta ekintzek eragina izanen dute Gobernu departamentu guztietan, toki entitateetan, eta are Foru Komunitatean berdintasunaren alde eta emakumeen eskubideen defentsan diharduten eragile sozial eta ekonomiko, elkarte eta kolektiboetan.

Horregatik ziurtatu behar da azken produktua kalitatezkoa izanen dela eta legeak berak ezartzen digun eskakizun garrantzitsuari erantzunen diola. Kontratua betetzeko aurreikusitako epeak kalitate hori bermatzeko ezinbesteko urratsak biltzen ditu, hala nola gogoeta saioak, ekarpenetarako aldia edo jendaurrean jartzeko prozesua. Fase horien guztien ondoren, kontratua betetzeko epe horren barnean aurreikusita dago 2021eko azaroa baino lehen prest edukitzea Nafarroako gizonen eta emakumeen arteko berdintasunerako plan estrategikoaren oinarritzko dokumentua.

Dena den, nahiz eta plan estrategikoa oraindik landu gabe egon, ez dugu aipatu gabe utzi nahi bitarte honetan guztian INAI/NABIK lanean segitu duela Nafarroako emakumeen beharrak asetzeko neurriak taxutzen eta garatzen, are gogo handiagoz garai honetan, bizi dugun krisiak ez diezagun atzera eragin emakumeen eta gizonen arteko berdintasun egiazkoa eta eraginkorra lortzeko bidean. Ildo horretatik, adibidez, COVID-19ak Nafarroako emakumeengan duen eraginari buruzko azterlana egiten ari da, desberdintasun horiek atzemateko eta neurri zuzentzaileak proposatzeko politika publikoetan; zalantzarik gabe, azterlan horretatik aterako diren ondorioak baliagarriak izanen dira plan estrategikoan haiek jasotzeko. Lan ildo horretan, berdintasunaren arloko ekarpenak egin zitzaizkion Nafarroa Susperu Planari; jada aurreikusi dira horietako batzuk. Jarraitu da hainbat neurri lantzen, zerikusia dutenak erantzunkidetasunez laneko eta familiako bizitza bateragarri egitearekin, toki entitateetan genero berdintasuna sustatzeko dirulaguntzekin, toki ekintzako taldeekin, enpresekin, emakume elkarteekin... Eta elkarlanean beste erakunde edo entitate batzuekin, hala nola NUKFrekin, NUPEkin eta hainbat arlotan ari diren beste elkarte batzuekin (emakumeen aurka indarkeria, prostituzioa, emakumeen elkarte mugimendua, ahalduntzea, etab.).

Helburua da krisi berri honek ez handitzea emakumeen eta gizonen artean lehendik badiren arrakalak; berdintasunerako politketan inbertitzen jarraitzeko asmo sendoa du foru gobernu honek.

## **Galdera, Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuaren” Printzearen Gotorlekua” kirol egoitzako kirolari egoiliarren plazak betetzeko deialdiari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mikel Buil García jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuaren” Printzearen Gotorlekua” kirol egoitzako kirolari egoiliarren plazak betetzeko deialdiari buruzkoa. Galdera 2020ko abuztuaren 28ko 91. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko irailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Podemos-Ahal Dugu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García jaunak idatzizko galdera egin du (10-20/PES-00163) Nafarroako Kirolaren Institutuko zuzendari kudeatzailearen uztailaren 30eko 517/2020 Ebazpenari buruz, zeinaren bidez onesten baitira Nafarroako Kirolaren Institutuaren Printzearen Gotorlekua egoitzako kirolari egoiliarren plazak betetzeko

deialdiaren oinarriak. Hauxe da horri buruz Nafarroako Gobernuako Kultura eta Kiroleko kontseilariak ematen dion informazioa:

COVID-19 pandemia dela eta, Osasun Departamentuaren esku jarri dira Printzearen Gotorlekua egoitzan baliagarri dauden plazetatik hogei. Horregatik jaitsi da urtero eskaini izan diren plazen kopurua.

Egoitza hori Nafarroako Kirolaren Institutuari atxikita dagoenez, eta kirolariei ostatu emateko beste aukerarik ez dagoenez, kirolarien kolektiboa lehenetsi da.

Ez dakigu Nafarroako Gazteriaren Institutuak beste aukerarik eskaini duen ikasle egoiliarrentzat.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2020ko irailaren 17an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

## **Galdera, Aizkolegiko Jauregia zaharberritzeko proiektuari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Francisco Pérez Arregui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Aizkolegiko Jauregia zaharberritzeko proiektuari buruzkoa. Galdera 2020ko abuztuaren 28ko 91. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko irailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Francisco Pérez Arregui jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Aizkolegi Jauregia zaharberritzeko proiektuari buruz (201\_10-20-PES-00164). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Zein da aipatu kontratazioaren egungo egoera?

Aurreko legealdian, eraikina zaharberritzeko obraren exekuzio proiektua idatzi baino lehen,

zeina azkenean ez baitzen gauzatu, memoria bat egiteko kontratua egin zen, eraikuntzaren akatsak eta arazoak identifikatzeko eta zaharbertzearen kostua zenbatesteko, faseak edo hobekuntza mailak ezarrita.

Memoria horretan 3 milioi euro inguruko kostua kalkulatu da eraikina erabat zaharbertzeko. Estalkien konponketak, berriz, egituran egin beharreko gutxieneko esku-hartzearekin batera, 900.000 euro inguruko kostua izanen luke. Prezioak gutxi gorabeherakoak dira, eraikuntza proiektua idatzi beharra bailegoke. Hauek dira planteatutako faseak:

1. fasea: estalkia berritzea eta horma eta zuta-beetan han-hemen konponketak egitea
2. fasea: egitura erabat sendotzea
3. fasea: kanpoaldea sendotu eta zaharbertzea
4. fasea: barnealdea egokitzea

Jarduketa berririk egin al da? Baiezkoan, zein izan dira? Zehaztu presako kontserbazioaren ala zaharbertzeko proiektuaren ondoriozkoak diren.

Memoria horretako konklusioak kontuan izanda, orain prospekzio lana egiten ari da eraikinaren erabilera-aukerak zehazte aldera, erabilera elementu erabakigarria izanen baita eraikina zenbateraino eta zer baliabiderek zaharbertu behar den zehazteko.

Aurreko legealdian kudeatutako Interreg Natur-clima proiektuaren barnean badugu diru mordoxka bat (90.000 euro inguru) presako eta kontserbazio proiektuaren jarduketetarako.

Aurreikusitako al da eraikina jendearentzat irekitzea? Baiezkoan,

noizko?

Eraikina zaharbertzeari ekin ondoren jarriko gara irekierari begira.

Iruñean, 2020ko irailaren 15ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Itziar Gómez López

## Galdera, eskola-curriculumean Skolae sartzeari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Roncesvalles Solana Arana andreak egingako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, eskola-curriculumean Skolae sartzeari buruzkoa. Galdera 2020ko abuztuaren 28ko 91. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako María Solana Arana andreak 10-20-PES-000165 informazio-eskaera aurkeztu du. Hona Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

– Noiz eta nola sartu da Skolae curriculumean?

Jaso nahi ditugu curriculum arautzen duten arauak eta dekretuak aldatzeko espedienteak, Skolae curriculumean sartzekoak.

Oso ugaria da Hezkuntza Administrazioarentzako gomendioak eta eginbeharrak jasotzen dituen araudia, gizonen eta emakumeen arteko egiazko berdintasuna eta genero-indarkeriaren prebentzioa sustatzen dituzten neurriak eta planak garatzeko agintzen diona. Beste batzuen artean, arau hauek nabarmendu behar dira: abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa, genero-indarkeriaren aurka babesa emateko neurriak buruzkoa; maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa, hezkuntzari buruzkoa; martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, gizonen eta emakumeen berdintasun eragingarrirakoa; apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko; azaroaren 16ko 103/2016 Foru Dekretua, sexu- eta ugalketa-osasunaren arloko prestazio sanitarioen antolamendua ezartzen duena; ekainaren 19ko 8/2017 Foru Legea, LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzkoa;

eta apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzkoa.

Arau horietan oinarrituta eta ikastetxeetan baterako hezkuntza, indarkeriarik eza eta sexismorik eza lortzeko betebeharra izanda, Hezkuntza Departamentuak erabaki du foru dekretu proiektu baten prozedura hastea Hezkidetzeta Plana onesteko.

Horregatik, Hezkuntzako kontseilariaren irailaren 21eko 79/2020 Foru Agindua onetsi da, zeinaren bidez prozedura hasten baita Nafarroako

ikastetxeetarako Hezkidetzeta Plana garatuko duen foru dekretuaren proiektua egiteko.

Curriculumean sartzeari buruz foru dekretu horretan jasoko diren jarraibideak eta erreferentziak nahitaez bete beharko dira, eta ez da hezkuntza etapetako curriculum arautzen duten foru dekretuak aldatu beharrik izanen, ikasgeletan egiten den curriculum garapenean eta zehaztapenean planaren edukiak sartu ahal izateko.

Iruñean, 2020ko irailaren 23an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

## Galdera, Nafarroako Adinekoen Kontseiluari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Patricia Perales Hurtado andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Adinekoen Kontseiluari buruzkoa. Galdera 2020ko abuztuaren 28ko 91. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko irailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Patricia Perales Hurtado andreak galdera egin du Nafarroako Adinekoen Kontseiluari buruz (10-20/PES-00166). Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozietako kontseilariak informatzeko duena:

Zenbat aldiz bildu da kontseilu hori legegintzaldi honetan?

Adinekoen Kontseilua hiru aldiz bildu da (2019ko abenduaren 16an, 2020ko otsailaren 14an eta 2020ko uztailaren 14an).

Zer gai jorratu dira bilera horietan?

2019ko abenduaren 16ko bilkuran honako aztergai hauek izan zituzten: 1) Kontseilariaren aurkezpena.

2) 2019-05-16ko akta irakurtzea eta, egoki bada, onestea.

3) Nafarroako Adinekoen Kontseiluko bigarren lehendakariordea hautatzea.

4) Nafarroako Adinekoen Kontseiluak Nafarroako Gizarte Ongizatearen Kontseiluan izanen duen ordezkaria hautatzea.

5) 2020ko araugintza plana.

6) Foru dekretu zirriborro baten berri ematea; dekretu horrek Foru Komunitateko gizarte zerbitzuen sistemako egoitza-zerbitzuen, eguneko zerbitzuen eta zerbitzu anbulatorioen funtzionamendua arautuko du honako arlo hauetan: adinekoak, desgaitasuna, gaixotasun mentala eta gizarteratzea.

7) Dirulaguntzak emateko deialdien berri ematea:

– Adinekoen arloko gizarte ekimeneko entitateentzako dirulaguntzen deialdia 2020rako.

8) Galderak eta eskaerak.

2020ko otsailaren 14ko bilkuran honako aztergai hauek izan zituzten: 1) 2019-12-16ko akta irakurtzea eta, egoki bada, onestea.

2) Adinekoen Kontseiluko lan batzordeko kideak izendatzea.

3) Irabazi-asmorik gabe adinekoen arloan ari diren gizarte ekimeneko entitateentzako dirulaguntzen 2020. urterako deialdia, elkarte mugimendua sustatzeko, autonomia eta mende-kotasunaren prebentzioa sustatzen dituzten programak garatzeko eta boluntariora programak garatzeko (onespena).

4) Foru dekretu zirriborro baten berri ematea; dekretu horrek Foru Komunitateko gizarte zerbitzuen sistemako egoitza-zerbitzuen, eguneko zerbitzuen eta zerbitzu anbulatorioen funtzionamendua arautuko du honako arlo hauetan: adinekoak, desgaitasuna, gaixotasun mentala eta gizarteratzea.

5) Galderak eta eskaerak.

2020ko uztailaren 14ko bilkuran honako aztergai hauek izan zituzten: 1) Aurreko bilkuraren akta onestea

2) Foru dekretu proiektu baten gaineko txostena; dekretu horrek Foru Komunitateko gizarte zerbitzuen sistemako egoitza-zerbitzuen, eguneko zerbitzuen eta zerbitzu anbulatorioen funtzionamendua arautuko du honako arlo hauetan:

adinekoak, desgaitasuna, gaixotasun mentala eta gizarteratzea.

3) Galderak eta eskaerak

Zenbat parte-hartzaile egon da bakoitzean?

2019ko abenduaren 16ko bilkura: 21 parte-hartzaile.

2020ko otsailaren 14ko bilkura: 25 parte-hartzaile.

2020ko uztailaren 14ko bilkura: 14 parte-hartzaile.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko irailaren 17an. Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

## **Galdera, Nafarroako foru parlamentariak toki entitateetara egindako bisitetan parte hartzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Yolanda Ibáñez Pérez andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako foru parlamentariak toki entitateetara egindako bisitetan parte hartzeari buruzkoa. Galdera 2020ko abuztuaren 28ko 91. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko irailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Yolanda Ibáñez Pérez andreak idatziz erantzuteko egin duen 10-19/PES-00167 galdera dela eta, hona Nafarroako Gobernuo Lurralde Kohesiorako kontseilariak ematen duen informazioa (lehendik ere emana, Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari

Francisco Pérez Arregui jaunak gai berari buruz iragan abuztuaren 7an aurkeztu zuen 10-20 PEI-00465 informazio eskaerari erantzunez): Nafarroako Foru Komunitateko zenbait udalerritara egindako bisitetan Pablo Azcona Molinet parlamentaria Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren zuzendari nagusiaren ondoan izateari dagokionez, parlamentariak berak azaldu zuen zuzendaritza nagusi horren eta udalen arteko hitzarmenak sinatzeko ekitaldietan egon nahi zuela. Azpimarratu behar da Geroa Bai talde parlamentarioak aurkeztutako aurrekontu-zuzenketen inguruko akordioak sinatu zirela, eta alkateek bisita ontzat emana zutela.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2020ko irailaren 7an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Bernardo Ciriza Pérez

## **Galdera, Osasun Departamentuak 2020ko aurrekontuetan aurreikusitako gastuen exekuzio-ezei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, Osasun Departamentuak 2020ko aurrekontuetan aurreikusitako gastuen exekuzio-ezei buruzkoa. Galdera 2020ko irailaren 11ko 95. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko urriaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak ida-

tziz erantzuteko galdera egin du (10-20-PES-00180), zeinean galdetzen baitu “zein gastuen exekuzio-ez aurreikusten dituen Osasun Departamentuak 2020ko aurrekontuetan, horietako bakoitzaren partida eta zenbatekoa adierazita”. Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariaren informazioa:

Informazio hau aurki daiteke Ekonomia eta Ogasun Departamentuak departamentu guztiei buruz emandako PEI-00527 erantzunean.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko urriaren 1ean

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna



